

MUSIKA. Talde berriak bere lehen disko 'Atarian' plazaratu du, non kantu lasaiak eta goxoak bildu dituen

Kantu zahar argitaragabeak Euritan Blairen ahotsean

Partaideek diote ez dela Ganbara taldearen «jarraipena» nahiz eta antz handia duen

Eneko Bidegain | **BAIONA**

Euria bezain musika tradizionala eta aldi berean betierekoa grabatu du Euritan Blai talde berriak. Musikariak eta kantariak ez dira, ez, hain berriak. Erdiak Ganbara taldean ezagun bilakatu ziren. Alboka taldekoan ibiliak ere juntatu zaizkie talde berrian.

«Lehena eta geroa» elkarri lotu dizkiote *Atarian* diskoan. Nafarroako eta Zuberoako kantu zahar ezezagun multzo bat bildu dute, «ikerketa lan handi baten ondotik», aurkezpenean adierazi zuten. Charles Bordes eta Azkueren kantutegiak miatu dituzte taldekideek. Josean Martin Zarkok «euskal folklorearen kantu argitaragabeen» aurkitzen parte hartu du.

«Gustatzen zitzaizkien doinu eta istorioak» hautatu zituzten diskorako. Gustatu zaien horietarik bat da Judu erratuaren kantiak, zeinak Israelera itzul ez daitekeen judu baten desterrua aipatzen duen. Horretaz gainera, Patziku Perurenaren hitz batzuk musikatu dituzte, kantu zaharrak berriz hartzeaz gain. Maitasun istorioak dira gehienen gaiak.

Kantu ezezagunak ere badira

Kantu guztiak ez dira hain ezezagunak, hala nola *Egunto batez nindagoelarik* eta *Au errenkura*/kantuak adibidez. Azken hau Ganbara taldeak kantatzen zuen. Maria Eugenia Etxeberria Ganbara taldeko kantari ohia-

ren ahotsean, talde hartan anitz pentsarazten du. Euritan Blai taldekoek ez dute uste, ordea, talde haren «jarraipen bat» denik. «Nire ahotsa hor da. Estiloa bera da. Jende askok pentsa dezake jarraipen bat dela. Baina konposaketa eta musikatze aldetik desberdina da». Maria Eugenia Etxeberria talde «akustikoagoa» eratu du bere lagun musikarien inguruan, horietarik bi Ganbara taldekoak izanak. Sintetizadore eta horrelako tresnarik ez da biziki entzuten edo ia batere.

Kantu gehienak arras lasaiak eta goxoak dira. Alaitasun nota batzuk ere ezarri dizkiote diskoari, noizbehinka, zati instrumentaletan. Marin Marais XVII. mendeko frantses musikariak Euskal Herrian inspiraturik sortu doinua berreskuratu eta diskoan sartu dute, polka aire batekin. Leitzako bi dantzeekin ere jantzi dute lehenbiziko lan hori.

Grabaketarekin gustura

Taldekideak gustura gelditu dira grabaketarekin. Agorila argitaletxeak proiektua plazaratzea proposatu zion, duela urtebete hasi zen taldeari. Miarritzeko estudioan grabatu zuten, «baldintza oso onetan». Hots, denboraren mugaren zama gainera kendurik. Hastapenean «lagunen arteko bilgune» gisa muntatu zenak orain kontzertuen aroa hasiko du. Nafarroan ibilirik, laster Gasteizko unibertsitatean dute hitzordua.



ANGELA MEJIAS

Euritan Blai talde berriko kideak *Atarian* izeneko beren lehen diskoa aurkezten.

azza eta musika tradizionala esku harturik

Ainhoa Oiarzabal | **DONOSTIA**

Herrimiña izenburupean, bere hirugarren diskoa kaleratu du Josetxo Goia-Arribek saxofoi jole nafarrak. Disko hau, aurrekoekin egin legez, «berezko soinu espazioa» osatzeko asmoarekin grabatu du. Hain zuzen ere, bere abestietan jazza nahiz Euskal Herriko musika tradizionala –Nafarroakoa batez ere– uztartzen dituen konpositorea da Josetxo Goia-Arribek. Berak produzitu du diskoa.

«Disko honek nire lehenengo diskoa izan zen *Auñamendi*-rekin hasitako bideari jarraitzen diot. Hark bezala, Europako jazzaren estetikari heltzen dio diskoak, musika tradizionalaren keinuekin», azaldu zuen atzo Donostian Josetxo Goia-Arribek musikariak. Gainera, bietan, jazzaren inprobisazioa erabiltzen duela zehaztu zuen. Hala ere, bere hirugarren disko hau lehenengoa baino helduagoa

dela uste du. Bigarren diskoa izan zuen *Eunate* «abentura» gisa definitu zuen konpositoreak, atzo. Disko horretan musika garaikideagoa egin zuen, saxofoiarekin eta biolontxeloarekin.

Laguntzaile apartak

Herrimiña diskoa egiteko ohiko bere laguntzaile paristarrak ondoren izan ditu Josetxo Goia-Arribek: Marc Buronfossek kontrabaxua jo du, Jerome Rateauk pianoa eta Francois Verlyk bateria nahiz perkusioa. Ohiko musikari horietaz gainera, Chano Dominguez (Andaluzia), Iñaki Salvadoren (Donostia) eta Arantxa Diezen (Tafalla) laguntza izan du azken disko honetan.

Lehen biak pianoa joz kolaboratu dute, «diskoaren aire mediterranearra zein atlan-

tiarra hobeto islatzeko egoiak zirelako esku hartu dute diskoan». Arantxa Diez jota abeslariak, berriz, ahotsa jarri du diskoaren zenbait kantutan: «Jota tradizionalaren tin-

brea eta estetika jaso nahi nituen, saxofoiarekin aberastu eta zerbait berria egiteko. Hala, Arantxarekin batera burutu ditut diskoko bi jotak», azaldu zuen Josetxo Goia-

Arribek kantuak egiteko prozesuaz jardun zenean.

Behin diskoa grabatuta, zuzeneko emanaldiak eskaintzeko gogoz agertu zen Josetxo Goia-Arribek, «baina horren aurretik *Herrimiña* diskoa entzutea eta gozatzea nahi dut». Martxotik aurrera edo eskainiko ditu zuzeneko emanaldiak musikari nafarrak.

J. GOIA-ARIBE

Saxofoi jolea

«Bi kantutan jotaren tinbrea eta estetika jaso ditut, gero saxofoiarekin aberasteko»



Euskadiko Liburu Azoka

G A L D A K A O N

- Muguru kalean.
- Abenduaren 15etik 24ra.
- Liburu zaharrak eta aukerakoak.
- %10eko beherapena.

BIZI IRAKURRIZ.

EUSKADIKO LIBURU AZOKEN BATZORDEA



- Unai Iturriaga
- Igor Elortza
- Oihane Enbeita
- Iratxe Ibarra
- Aritz Lopategi
- Fredi Paia
- Arkaitz Estibales
- Juanjo Respaldiza

